

ARTE HEZKUNTZA ETA PROZESU KOLABORATIBOAK

Elkarrekin sortu, elkarrengandik ikasiz





- Herri Hezitzailea lantaldea:

Irrien Lagunak Kluba, Lizarrako eta Iruñeko udal haur-eskolen taldea, Hik Hasi pedagogia-ekimena, Oarsoaldeko Garapen Agentzia, Topagunea, Sorguneak ikertegia (Huhezi, MU), Ikastolen elkarteko Aisiola aisialdiko taldea, Tabakalera, Amarauna Sarea, Pil-pilean euskara elkartea, Kukumixo, Arrasateko Txatxilipurdi euskara eta aisialdiko elkartea, Bizkaiko Urtxintxa eskola, Gipuzkoa Urtxintxa eskola, Arremanitz, Elgoibarko Izarra eta Ttakun Kultur Elkartea.

- Koaderno honen egilea:

Tabakalera

- Maketazioa eta ilustrazioak:

Eñaut Aiertzagüena Bravo

-Argazkiak:

Tabakalera

- Inprenta:

Gertu inprimategia

- Babeslea:



- Bildumaren ISBN:

978-84-617-7759-4

- Arte hezkuntza eta prozesu kolaboratiboak

SS-0016-2017

ISBN: 978-84-617-7761-7





Zazpi kontzeptutan oinarritzen da hemen proposatzen dugun aisia-eredua. Zazpi eremu horiek elkarrekin ezkontzen, garatzen eta aberasten dira, eta, proposamen koherente eta oso bat egin ahal izateko, zazpiek halaberrez elkarrekin joan behar dutela uste dugu.

Horrela formulatu ditugu gure lan-eremua eta xedea:

- Jolasa eta sormena ikasteko eta garatzeko berariazko tresnatzat dituen **haurren kultura aitortzea**;
- Hori oinarri hartuta, haurrei **benetan parte hartzeko eta erabakitzeko ahalmena** ematea;
- Euren eraikitako **aisia hezitzaile** eta **euskaldunaren** bitartez, **aniztasunean berdin eta parekide izanez eta ingurumen naturala eta kulturala zainduz, komunitate-sarea eta auzolana** indartzea
- Pertsonen arteko harreman osasuntsu, justu eta ase-garriak jostea.







AURKIBIDEA

1. SARRERA	6
<i>Zergatik liburuxka hau?</i>	6
2.- NONDIK HITZ EGITEN DUGU. GURE IZAERA	9
3. AUZOKO HITZAK: PROZESUAREN GARAPENERAKO BETAURREKOAK	12
<i>Auzoko hitzak</i>	14
<i>A.- Abiapuntua eta negoziazioa</i>	16
<i>B.- Garapena, metodologiak eta dinamikak</i>	20
<i>C.- Itxiera, balorazioa eta ezagutza berriak partekatzea</i>	27
4.- ERREFERENTE INTERESGARRIAK	31
5.- TERMINOLOGIA PARTEKATZEN	35
6.- GAIARI BURUZKO TESTU BATZUK:	39





I. SARRERA

Esku artean duzun liburu hau ariketa kolektibo bat izan da, ikerketa eta esperimentua nahasten dituen ariketa. Bost ahotsetara idatzitako ariketa.

Beste ahots batzuen oihartzuna ere kontuan hartu dituen.

Tabakalerako hezkuntza arloan egiten dugun lana ere beste esperientzia eta erreferenteek aberasten dutelako kolektibazio lan bat egitea garrantzitsua dela uste dugu. Hausnarketak partekatu. Ondo dakigu hezkuntza-praktikak teorizatorako leku gutxi uzten duela, eta horregatik, asko eskertzen dugu gure planteamendu, pentsaera eta egi-

teko moduei buruz hausnartzeko eta hauek partekatzeko aukera paregabe hau.

Zergatik liburuxka hau?

Arte hezkuntzak ibilbide luze eta garatua du, hala nola teorizazio sakona ere. Gaiaren ikuspegi orokorregi bat eman beharrian, liburuxka honetan kultur esparru eta hezkuntza komunitateen arteko gurutzaketan zentratzea planteatzen dugu. Askotan eskola eta artearen arteko loturak ez dira gehiegi lantzen edo bien arteko planteamenduak oso urruti daudela pentsatzen da. Baina badira eredu interesgarriak





eta esperientziak erakutsi digu arteak iruditegi kritiko hobezina eskaintzen digula hezkuntzatik lanketa sakona bideratzeko.

Hezkuntza bera praktika kritikoa dela kontutan hartuta, artearen planteamenduekin uztartzea ezinbestekoa iruditzen zaigu, honek pertsona eta komunitateen gaitasun eta pentsamendu alternatiboak eta ez normatiboak garatzeko indarra areagotzen duelako. Horretaz gain, eskolak bere inguruko komunitateekin harremanak estutzeko apustua mahaigaineratzen dugu, honek hezkuntza praktika eraldatzaileak bermatuko dituelakoan gaude-

lako. Esan genezake beraz, praktika artistikoez hezkuntza bera elikatze gaitasuna dutela eta alderantziz ere, hezkuntza prozesuek arte esparruan eragiteko ahalmena dutela. Eta horregatik, ziur gaude kultur zentruak eta hezkuntza komunitateek elkarlan interesgarriak garatu ditzakegula.

Beste alde batetik, hemen aurkeztuko den gaiak (auzoa eta kalea hezkuntza esparru gisa) ere badu bere garrantzia gure lan-planteamenduen baitan. Eten-gabeko ikasketa prozesuak gauzatzen diren lekuak dira espazio publikoak. Maniobra arkitektoniko eta urbanistikoek espazio publikoan garatzen di-



ren jarrera batzuk normalizatu eta hegemoniari erantzuten ez dioten beste batzuk kontrolatzeko ahalmena dute. Horregatik hezkuntza prozesuan hauen inguruko bizipenak lantzean, erabilera eta eraldaketa posibleak pentsatzeko esparru eta aukera ona sortu daiteke. Ildo horretatik tiraka, kultura bera ez da bakarrik arte edo kultur zentroetan ekoizten, kalean, herrian eta hirietako leku guztietan etengabe sortzen den zerbait da. Zentzu horretan espazio publikoak hezkuntza eta kultur ekoizpena biltzen ditu, eraldaketa soziale-rako tresna baliagarriak direlarik.

Horrela bada, liburuxka honetan topatuko duzuna, hezkuntza eta komunitate anitzen arteko kolaborazioen azterketa izango da, adibide zehatzetatik abia-

tuta. Tabakalerako hezkuntza arloan erabiltzen ditugun lengoai eta egiteko modu batzuk partekatzeke helburua dugu. Hasteko, gure marko teorikoa eta planteamendu metodologikoak azalduko ditugu. Jarraian, ondo eza-gutzen dugun proiektu bat aurkeztuko dugu, narrazio kritiko hau baliabide bezala eskainiz. Ondoren, beste eragile batzuk arte hezkuntza eta praktika komunitarioak uztartzen dituzten proiektu interesgarrien erreferentziak partekatuko ditugu. Eta azkenik, darabilzki-gun terminologia barruan hitz batzuk aukeratu eta haiekin esan nahi duguna azalduko dugu, lengoai partekatzeke helburuarekin. Laburbilduz, baliabide eta metodologiak eskaini nahi ditugu, honek proiektu berriak eratzeko gogoia sortuko duen esperoan.





2.— NONDIK HITZ EGITEN DUGU, GURE IZAERA



Tabakalerako hezkuntza arloan egiten dugun lanak kultura garaikidea eta praktika artistikoen inguruan hausnarketa planteatzea du helburu. Hezkuntza praktika ikerketa gisa ulertzen dugu, ikaspen prozesuetan ezagutzak sortz-en direlako, eta aldi berean beselako errealitateek eta bizipenek ere onartu, barneratu eta prozesua aberastan dutelako. Aldez aurretik existi-

tzen diren ikas-komunitate ezberdinekin bat egiten dugu edo berriak erazten laguntz-en dugu, horrela eragile ezberdinekin batera sareak eratuz. Horregatik esan genezake Tabakalerako hezkuntza arloa proiektu kulturalaren proiektu pedagogikoa dela.






Gaur egun bost ardatz ezberdin be-
reizten ditugu hezkuntza arloko lan-
ildoen barruan, hona hemen hauek
lantzeko gure buruari planteatzen diz-
kiogun galdera batzuk:

- **Erakusketekin elkarrizketan:** Nola sortu elkarrizketak erakusta-
retoetan? Nola gurutzatu arte
praktikaren alorreko jakintza es-
pezifikoak halakoak ez direnekin?
Nola artikulatu ikerketa prozesu ko-
lektiboak esparru horretan?
- **Pedagogiak eta espazio publikoa:** Zer potentzial dute espazio pu-
blikoek hezkuntzari dagokionean?
Portaerak baldintzatu eta ekintzak
mugatu ditzakete? Nola jardun de-
zakegu leku horietan kolektibitateak
eraikitzeko?
- **Hezkuntza eta ikus-entzunezko
narratibak:** Ikusteko, entzuteko edo
kontatzeko modu nagusien alterna-
tibak sortu al daitezke? Era kritikoan
pentsatu daiteke sortu eta hedatzen
ditugun irudien inguruan?
- **Feminismoaren eta gorputza-
ren pedagogiak:** Jakintza guztiak
maila berean kokatzen dira, edo
batzuk ikusezin bihurtzen dira?
Nola aktibatu dezakegu gorputza-
ren entzuketa, eta leku horretatik
ikasi? Bizitza eta zaintzak erdigu-
nean jartzeak duen garrantziaz ari
garenean, zertaz ari gara?
- **Eskola. Hezkuntza ikerketa gisa:**
Zer ikerketa praktikak gertatzen dira
hezkuntzan kokatutako ezagutza-

tik? Nola egin daiteke gogoeta gure
praktiken inguruan hezkuntza lana-
ren bidez? Zer ekintza eta ikerketa
metodologia interesatzen zaizkigu
alor horretan?

Arte hezitzaile bezala esan genezake
lan eremu hau ez dela asko hedatu
Euskal Herriko testuinguruan, nahiz eta
badira urteak Euskal Herriko museo eta
kultur zentroetan arte hezkuntza proiektu-






tuak garatzen ari direla. Horregatik, garrantzitsua iruditzen zaigu elkarlanean aurrera eramaten diren proiektu kultural eta pedagogikoak erakusketa aretoetatik haratago helaraztea.

Praktika artistikoak baliabide gisa ulertzen ditugu eta aurretik esan bezala hezkuntza esparrutik begirada kritikoa landu daitekeela uste dugu, pertsonon hezkuntza prozesu globa-

la aberastuz. Zentzu horretan artea aipatzen dugunean esan nahiko genuke ez dugula bakarrik arte objektua (pintura bat, eskultura bat, ikus-entzunezko bat...) erreferentziatu nahi. Praktika artistikoaren eremuan lanean ari garen heinean, garrantzitsua da artearen ideia ireki eta objektutik haratago joatea. Artea ere ikerketa esparru bat da, gai eta elementu askoz osatutako konstelazio bat: erakusketak, artisten praktikak, artearen sistemak, artearen kudeaketak... hauek guztiek arte-objektuaren errezepzioan eragina dute eta ezin dugu arte-objektua gauza isolatu bat bezala ulertu.

Praktika artistikoa eta arte ekoizpena prozesu soziala da, testuinguru batean kokatzen dena eta bizitzako beste arlo guztiekin gertatzen den bezala, ideologia edo mundu ikuskera bati erantzuten diona. Horregatik, ez zaigu interesgarria iruditzen artea, artelana edota artistak jendartetik at dauden prozesu isolatuak bezala ulertzea. Modernitateak artista-jenioaren mitoa eraiki zuen, artista subjektu sortzaile eta baztertu gisa ulertua, inspirazioak jota artelan ederren sortzaile dena. Oraindik ere ideia hau jendartean bizirik dirau, eta gure ustez nozio honek artearekin izan dezakegun harremana guztiz mugatzen du. Horren ordez, artista kultur langile gisa, eta artelana, esanahi ugari izan ditzakeen artefaktu kultural gisa ulertu nahi ditugu. Hortik abiatzen dugu gure lana ulertzeko lekua.





3. AUZOKO HITZAK: PROZESUAREN GARAPENERAKO BETAURREKOAK

“Hezitzaile gisa, beti espero behar izango genuke ustekabeko emaitzek hasierako helburuak gainditzea.”

*Fernando Hernández
Educación y cultura visual*

Atal honetan 2014an garatutako Auzoko Hitzak proiektuaren kontakizuna egin nahi izan dugu. Ariketa honek interes pedagogikoa dauka, baina bakarrik hausnarketatik egiten badugu. Carmen Mörsch ikerlari eta hezitzailearen hitzak abiapuntu gisa hartuta, hezkuntza prozesuen inguruko kontaktak begirada kritiko batetik egitea ezinbestekoa dela uste dugu. Tendentzia dugu askotan narrazio arrakastatsuek eratzeko, auto-afirmaziora garamatzatenak, eta horrek ez du ikas-bide berririk baimentzen. Hala ere, esan beharra dago esperientzia honen kontaketan Tabakalerako hezkuntza arloko hezitzaileen begirada jasotzen dela soilik, eta badakigu beste ahots batzuen ikuspegia gehituz asko irabaziko genukeela.

Guk bizi izandako esperientzia batzuk aipatuko ditugu, era berean, proiektuetan sortzen diren problematika eta tentsioak identifikatu eta erabakigarriak izan diren momentu batzuen ondorioak aztertuz. Formula itxiak proposatu gabe, testuinguru eta berezitasun bakoitzetik abiatu eta guztiontzat baliagarriak diren adibideak jartzen saiatuko gara, betiere zailtasun eta kontraesanak, arrakasta eta onuren ondoan jarriz.

Hona hemen hausnarketa bideratzeko gai batzuk:

Zein markotan eman dira proiektuen nondik norakoak? Zein baldintzetan?

Zer motatako harremanak bideratu dira eskola-komunitate eta kanpo-eragileen artean? Zeintzuk dira





proiektu hauen potentzialtasunak? Eta zeintzuk zailtasun edo arriskuak? Zer motatako hedapena eskaintzen dute proiektu mota hauek?

Aipatzen dugun “zalantzan jartze” jarraera hau hasiera hasieratik presente izan beharko genuke. Gure proposamena da, arte hezkuntza proiektu bat garatzerako momentuan gure buruari horrelako galderak egitea:

Zein ideia dauzkagu arteari buruz? Eta kulturari buruz? Zein praktika artistiko mota ezagutzen ditut? Eta ze artista? Artelana hitza entzutean zein irudi datorkit burura?

Askotan artea, arte plastikora mugatzen dugu edo ikusizko artera, kanpoan utziz soinua, arte biziak edota arte kontzeptuala bezalako beste praktikak. Gainera, dekoratibotasuna, edertasuna, eta horrelako balioekin lotzen dugu, hezkuntzan bigarren mai-

lako jarduera bezala ulertzen dugularik. Gehienetan artearen ideia eskolan ospakizunen dekorazioa eta jantziak prestatu, gai baten ostean ilustrazioak egin, etabarretara mugatzen da. Honekin, kultur ekoizpenak dituen potentzial kritikoak, sortzaileak eta iraultzaileak deuseztatzen ditugu.

Kasu honetan, komunitatea eta espazio komunak inplikatzan dituzten egitasmoei buruz ari garenez, beste galdera hauek ere egitea komenigarria litzateke:

Zein harreman gustatuko litzaziguke izatea gure gertuko komunitatearekin? Zer ikasten dugu kalean? Zer ikasi genezake kalean, eskolarekin batera? Nolakoak dira eskola barruko eta kanpoko espazio publikoak? Nola baldintzatzen eta aldatzen dituzte espazio hauek eguneroko harremanak? Eta ikaspenak?



AUZOKO HITZAK

Auzoko Hitzak Tabakalerako hezkuntza arloak eskolekin elkarlanean martxan jarritako lehenengo proiektu pilotua izan zen. Egiako *Aitor Ikastola*, *Maria Reina Eskola* eta *Mundaiz Ikastetxe*arekin batera garatu zen proiektu pedagogiko honetan euskara, auzoa eta kultur ekoizpenak izan ziren ardatz nagusiak.

Euskara, “Ikasle Euskaldun Eleanitzak sortzen” egitasmoaren barruan kokatzen zelako. Aitor ikastolak eta Sortzen elkarteak, auzoa inplikaturaz, momentu horretan garatzen ari ziren bost urterako prozesua zen.

Kasu honetan garrantzitsua izan zen beraz, garai horretan alde aurretik zegoen interes eta behar jakin ba-

Euskaldun eleanitza
Euskaldun plurilingue

4 ikastola
4 ikastolas

EUSKARA

**Hezkuntza
Komunitatea**
Comunidad
Educativa

**PRODUKZIO
KULTURALA**
PRODUCCIÓN
CULTURAL

Hezkuntza Tabakalera
Área de Mediación de Tabakalera



ten baitan txertatu eta egitasmoarekin bat egitea.

Auzoa, pedagogia eta espazio publikoaren arteko harremana landu nahi zelako hezkuntza komunitatea indartuz. Garapenerako testuingurua auzoa izango zen, auzoaren mugak zalantzan jarriz, auzo asko egoten baitira auzo berdinaren barruan. Fisikoki, Egia auzoan garatuko zen,

baina hortik harago, auzoak berak dituen muga fisiko eta ez fisikoak aztertu nahi izan ziren baita ere. Bestalde, sarreran aipatu dugun bezala, kalea edo auzoa, eskola gisa ulertzeko desioa ere bazegoen. Hainbat korrante pedagogiko errepikatzen duten bezala, ikaste prozesuak uneoro ematen dira eta eskolak sistematik sortzen diren irla eta klasifikazioak birpentsatu beharko genituzke.

Eta azken ardatza, **Kultur ekoizpena**, batetik, hezkuntza prozesuetan kultura ere sortzen delako, eta bestetik, praktika artistikoa eta kultur ekoizpenak espazio interesgarriak sor ditzaketelako hezkuntza prozesuetan.

2014-2015 ikasturteko urria eta martxoa bitartean garatu zen Auzoko Hitzak. Lehen hezkuntzako (LH 4 eta 5) 9 talde eta Egiako agente eta komertzio ezberdinekin elkarlanean egon ginen. Ikasle talde bakoitzarekin 8 saio burutu ziren. Denbora tarte horretan, ikasleek beraien egunerokotasunean erabiltzen zituzten espazioen inguruko azterketa egin zuten, beste erabilera batzuk proposatuz eta euskararen erabileraren inguruan hausnartuz. Talde bakoitzak leku ezberdin batean esku hartu zuen, bertan geratu zen artefaktua sortuz.

Proiektu guztian zehar elkarlana eta hartu emana sustatu nahi izan zen, bai eskolen artean eta baita eskolak, auzoa eta auzokideen artean ere. Horregatik bidelagun ugari izan ginen. Antxeta ttan-ttakun taldeko hezitzaileak,

Egia Auzoa
Barrio Egia

ESPACIO PÚBLICO
ESPACIO PÚBLICO

alera





Ipar grafikak, Egiako hizkuntza batzordea, Guraso elkarteak, eta beste kultur eragile batzuk.

Proiektuak garatzeko eta azterketa bat egiteko, lan guztia egituratzen duten fase batzuk identifikatzen ditugu:

- **Abiapuntua eta negoziazioa**
- **Garapena, metodologiak eta dinamikak**
- **Itxiera, balorazioa eta ezagutza berriak partekatzea**

Ondorengo lerroetan estruktura hau jarraituko dugu proiektua azaltzeko, baina beste hainbat tentsioetan jarriko dugu arreta, hauek ez direlarik beti fase berdinean gertatzen.

A.- Abiapuntua eta negoziazioa

Egitasmoa garatzeko lehenengo proposamena, Tabakalerako hezkuntza arlotik abiatu zen. Aldez aurretik izandako hainbat bileren ostean gai hau lantzearen beharra ezagutzen genuen: euskara ikastolatik kanpo ere sustatu, auzokideak inplikatu eta eskola komunitate ezberdinen artean aliantzak bilatu.

Eskolak eta gu elkarlanean arituko ginen lehenbiziko aldiz, eta elkarrenganako konfiantza pedagogikoa erakitzeaz zegoen oraindik. Erraza da kontzeptu teorikoak erabiliz hezkuntzari buruz hitz egitea, baina askotan errepikatzen dugun bezala, hezkuntzan, garrantzitsuagoa da gauzak **NOLA** egiten diren ondo pentsatzea, **ZER** egiten den baino...

Zentzu honetan, oso garrantzitsuak izan ziren proposamena egin ondoren izandako bilerak.

Lehen momentu hauetan elkarri entzun, mesfidantzak usatu, testuinguruak eta motxilak ezagutu eta ulertu, eta batez ere ahalik eta argien azaldu behar izaten direla zeintzuk diren eragile bakoitzaren interes eta beharrak. Azken hau adibidez, oso zaila da hasieratik adieraztea... ez bait-gaude ohituta gai hauei buruz hitz egitera, eta batzuetan badirudi guztiok ematen ditugula "ulertutzat" gauza asko, nahiz eta prozesua aurrera doan heinean konturatzen garen bakoitzak buruan ideia ezberdinak eraiki dituela. Horrek gaizki ulertuak sor ditzake. Danok ditugu oraindik gertatu ez denaren inguruko irudipenak eta honek nahigabe garapena, bizipena eta balorazioa baldintzatuko du.

Auzoko Hitzak proiektuaren kasuan, gauza gehiegi genituen hasieran hitz egiteke. Eragile berria ginen, Tabakalera ez zen instituzio ezagun eta definitu bat, eta elkar ulertzeko denbora dexente behar izan genuen.

Proposamena bota genuenetik 6 hilabete pasa ziren (uda tartean) proiektuaren garapenarekin hasi ginen arte. Denbora asko dela pentsa genezake, baina erritmoak errespetatzea gauza inportantea dela uste dugu, eta lantaldia prest egon arte itxarotea. Orokorreran proiektuetan lehenengo fase honi ez zaio horrenbesteko garrantzia ematen, edo proiektuari buruz hitz egiten





denean ez da aipatzen. Baina proiektu guzti-guztiek bizi dute lehen fase hau eta nahiko ikustezina den arren, lanaren zati garrantzitsuenetarikoa dela esango genuke, egitasmoaren bilakaera guztiz baldintzatzen duelako.

Kasu honetan ezin izan genuen nahi bezain beste landu negoziazio fasea eta edukiak modu kolaboratiboan guztiz definitu. Horregatik gure proposamena da hasiera hasieratik interes, behar eta mugeri buruzko dinamika bat egitea.

*** Parte hartzen duten eragile guztiek pentsatu beharrekoa:**

Zergatik parte hartu nahi dut proiektu honetan? (ikasteko, behartuta nagoelako, nitaz zerbait espero delako,...)

Zer irabazten dut nik? (balio kulturala, prestigioa, errekonozimendua, gurasoen onarpena, babes soziala,...)

Zein etekin jaso nahiko nuke? (etekin pedagogikoak, baliabideak,...)


Zeintzuk dira nire mugak? Eta nire ardurak? (denborazkoak, baliabideak, edukiak, ...)

A.1.- Parte Hartzea vs Kolaborazioa

Auzoko Hitzak proiektuan ikasleak garapeneren protagonistak eta agenteak izatea zen helburua, nahiz eta gaia bera eta hasierako proposamena emanda etorri zitzairen.

Kasu honetan, ikasleak parte-hartzailerak izan ziren, eta oso modu aktiboan parte hartu zuten gainera. Baina gure helburuen baitan zegoen praktika kolaboratiboak garatzeko dinamikak ez ziren hainbeste eman.

Honekin ez dugu esan nahi beti interesgarriena prozesu kolaboratibo bat ematea denik hezkuntza praktika aberasteko, baina uste dugu bideratzen ari garen eredu mota argi izan behar dugula alde aurretik, kontzeptuak argi erabiltzea garrantzitsua delako.





Sarritan, artistekin egiten diren proiektuak ez dira irakasle-goarekin batera diseinatzen eta, baliteke, ikasleek ekoizpen laguntzaile gisa soilik parte hartzea. Era berean, bitartekariak (arte hezitzaileak, gizarte eragileak...) egiten duten lana bigarren maila batean kokatzeko arriskua ere badago.

Bestalde, hezkuntza komunitatea, artistaren (arkitekto, kolektibo,...) singularitasunarekin txundituta geratu daiteke, eta proiektua benetako ezagutza elkartrukerik eman gabe bukatu. Gerta liteke horrela kanpoko agente hau hezitzaile askatzaile, sortzaile, edo eraldatzaile gisa agertzea, eta honek ekar lezake kontran irakasle eta eskola despolitizatzea, eta hezkuntza herri-mugimendu bezala ulertuta dakartzan tradizio eta ezagutza kritikoak ez ikuskaratzea.

Aída Sánchez de Serdio

Irakasleekin ere gauza bera pasa zen: guk alde aurretik diseinatu genuen proposamen bat eta irakasleei aurkeztu genien hainbat bileretan.

Alde batetik, honek lasaitasuna ekarri zuen, bertan gure balio-hezitzaileak errekonozitu zirelako proposamena aurkezterako orduan. Baina bestetik, baliteke batzuetan proiektuak 'lan karga' aldagaiarekin neurtzea, eta hori arriskutsua izan daiteke. Irakasleek lan karga handia izaten ohi dute eta eskoletan proiektu asko garatzen dira aldi berean, baina batzuetan zaila da eskolako funtzionamendu tradizionalarekin apurtzea. Praktika berriak aurkezterakoan batzuetan jarrera ezkorrak

jasotzen dira, honek lan gehiago suposatuko duela aitzakiatzat hartuta.

Gerora egin ditugun beste proiektu batzuetan adibidez, desiotik lan egiteko dinamikak frogatu ditugu. Hau da, proiektuan parte hartzera behartu ordez, irakasleei aukera eskaini zaie proiektuan sartu eta ko-diseinuak egiteko, jarrera oso ezberdinak jasotzen direlarik. Bigarren eredu honekin esperimentatzen ari gara oraingoz, eta interesgarriagoa iruditzen zaigu. Nahiz eta honek ere zalantza batzuk sortzen dizkigun, oso eroso da baita animatzen diren irakasleekin lan egin eta nahi ez dutenak baztertzea, eta horrek eragiten du ikasle batzuk beti proiektuetan parte hartu gabe geratzea.





A.2. Bukaera ez ezagutzearen bertigoa (Prozesua Vs Emaitza)

Auzoko Hitzak proiektuaren kasuan, negoziazio fasean zuzendaritza taldeek hartu zuten parte. Ikasle eta irakasleek ez. Eta aurretik aipatutako sententziak sortu ziren, irakasleek proiektua jaso eta atxikimendua sortu behar zuten, baina nola? Zerutik etorritako proiektua baldin bazen.

Bestalde, mota honetako prozesuetan, egitasmoaren estruktura alde aurretik ezagutu dezakegu, baina ezinezkoa izaten da proiektuak nora eramango gaituen definitzea, ze forma hartuko duen, ze saio dinamizatuko diren. Eta hemen askotan beldurrak sortzen dira

irakasleen partetik. Programatzeak segurtasuna ematen digu eta inportantea da, baina denbora laburragoekin programatzeko proposamena luzatzen dugu. Hau da, askotan ondo dago saio bat garatzera itxaron, ondoren etorriko den saioa zehaztu ahal izateko... horrela edukiek lotura izango dute, eta ikasleak izango dira benetan prozesuaren liderrak, eta ez alderantziz.

Bestalde, inportantea da ere esperimintazioari tartea uztea, prozesua bera bizitzea, ezjakintasunaz gozatzea, akatsak egiteko eskubidea izatea.




B.- Garapena, metodologiak eta dinamikak

Aurretik aipatu bezala epe luzeko proiektu bat garatu genuen. Hortaz, ikasle talde bakoitzarekin 8 saio egitea aurreikusi zen. Nahiz eta oraindik ezinezkoa izan saio bakoitzaren garapen eta diseinuak zehaztea, bagenekien orokorrean zein ideia landu nahi genituen. Hori bai, ideia eta edukien garapena eta helmuga ikasleek markatuko zuten, eta ikasle talde bakoitzak gainera prozesu propioa garatu zuen.

Lehenengo saioetan elkar ezagutu eta proiektua aurkeztearekin batera gaia lantzen hasi ginen galdera ezberdinen bidez, beraien ekarpenetatik abiatuko baitginen:

Nola erabiltzen dut auzoa? Zein toki ditut gustuko? Ondoren: Zer egiten dut toki horretan? Zertarako erabiltzen ditut? Eta bukatzeko: Zer esaten dut bertan? Zein hitz erabiltzen ditut? Zein hitz entzuten ditut?

Inportantea izan zen beste material eta metodologia batzuk erabiltzea. Horrela, azetatoa, permanenteak, eta geruza ezberdinak gehituz sortzen ziren marrazkiak egin genituen. Marrazki bategen auzoko espazio garrantzitsu baten errepresentazioa eta bertan erabilitako hitzak eta egindako ekintzak jasotzen zituen. Bestetik espazio horri ateratako argazkia eta bertan entzundako eta esandako hitzak jasotzen ziren. Ondoren bi irudiak erlazionatzen dituen hitz edo akzio bat aukeratu zen, espazioan bertan beste pertsonekin edukitako in-





terakzioa erakusten dutenak. Aukeratutako toki guztiak mapa handi batean kokatu genituen auzoaren beste perspektiba eta informazio bat izateko. Bertan konturatu ginen toki ezberdinetatik ibiltzen zirela, edo kontrakoa, ibilbide berdintsuak egiten zituztela askok.

Fase honen bukaeran gure buruari galdetu genion ea posible genuen akzio guzti horiek euskaraz egin. Eta konturatu ginen kasu askotan ezin zela, besteen artean dendariak euskararik ez zekitelako, jolas batzuk gaztekeraz bakarrik ezagutzen zituztelako, edota ikastetxeko espazio batzuetan euskara hain presente ez zegoelako.

Hau izan zen, hain zuzen ere, eraldaketarako abiapuntua. Ikasle talde bakoitzak erabaki zuen zein espazio,

erabilera eta gertaera eraldatu edo azpimarratu nahi zituzten.

Aukeratutako espazioak Plaza Haundi, Etxabe parkea, Mundaiz ikastetxeko jantokia, "Rasca y pica" eta "The blessing" gozoki dendak, "Bitxiak" denda, "Goraya" fruteria, "Joserra" harategia eta Kristina Enea Parkea izan ziren.

Behin espazioak aukeratuta, hauek esploratzera atera ginen. Bertan bizi eta egoten diren pertsonekin hitz egin eta grabazioak egin, tokiak aztertu, hitzak bilatu, elementuak marraztu, soinuak grabatu, eta gure gorputzarekin ere espazioaren pertzeptzioa landu genuen. Hauek neurtu, bertan zer egin daitekeen eta zer ez, zertara jolasten garen....



B.1. Esku hartzeak.

Artefaktuen ekoizpena

Ondoren toki ezberdinetan esku-hartzeak diseinatu hasi ziren. Prozesua ezberdina izan zen kasu bakoitzean eta artefaktu hauek ekoizteko behar izan ziren baliabideak eta elkarlanak ere anitzak izan ziren.

Jarraian, gauzatutako kasu batzuen adibideak partekatzen ditugu.

“Fruitak”.


Maria Reina eskolako 4º mailako taldeak fruta-denda bat aukeratu zuen bere proiektua burutzeko. Denda behatu eta bertako langile batekin (Nabit) elkarrizketa egin ondoren, bi elementu ezberdin zituen hiztegi-mapa bat diseinatu zen: dendako fruitu ezberdinen marrazkiak eta, dendan normalean

erosi edo galdetzeko erabiltzen diren hitz arruntak. Hiztegiak gain, fruituen alboan jartzeko kartelak diseinatu ziren hiru hizkuntzetan (euskara, gaztelera eta urduera), elkarri euskara eta urduera erakusteko aukera izan genuelarik.

Emaitza hauek Goraya frutadendan kokatu ziren.

“Euskarazko Hiztegia”.

Aitor ikastolako 4º mailako talde batek Joserra harategia aukeratu zuen. Bertan esplorazio prozesu bat egin eta jabearekin (Joserra) elkarrizketa bat mantendu ondoren, taldeak bi proiektu ezberdin garatu zituen. Alde batek, dendan saltzen diren produktuekin egindako hiztegi bisuala eta bestetik,



Honetaz gain, euskaraz egitera animatzen dituzten mezuak jasotzen dituzten kamiseta batzuk egin zituzten. Kamiseta hauek astean behin erabiltzeko adostasunera iritsi ziren, ikasge-latik kanpo “kartel mugikor” bezala funtzionatuko zutelarik.

“Plaza Haundiko mapa berria”

Mundaiz ikastetxeko 5º mailako talde bat eta Aitor ikastolako 4º mailako talde batek Plaza Haundin lan egitea erabaki zuten. Espazio ezaguna da beraientzako, jolasteko erabiltzen dutena eta auzoko erdigunea.

Batzuk plazaren erabilera ludikoa aztertu zuten, bertan eman zitezkeen

jolasen artean batzuk aukeratu eta euskaraz jolasteko arau berriak asmatu zituzten. QR kodigo batzuen bidez, jolas hauetan nola jolastu behar den azalduz grabatutako bideoetara lotura egin zen. Tokaren jokoak, Euskal Twistera eta Ur puxiken iraultza.

Beste taldeak ere bideo eta QR sistema erabili zuen beraien ekarpena mapan egiteko. Baina beraien kasuan, toki berezi eta ezkutuen grabaketa egin zuten, askotan helduen bistatik kanpo geratzen ziren tokiak, eta jolasteko eta egoteko gustoko zituztenak: “kluba”, “animalien iskina” eta jolasak berriz “Alturatxoak”, “Karrera Hezurhaustzaileak” eta “Pikontua”





B.2.- Elkarrizketetan oinarritutako metodologia

Hezitzailearen papera ez da herriari bere munduikuskerari buruz hitz egitea edota begirada hau inposatzea, baizik eta bakoitzaren ikuskerari buruz elkarrekin hitz egitea. Argi izan behar dugu, herriak duen munduaren ikuskerak, bere munduarekiko posizioa eta bere zeregin guztiak biltzen dituen begirada bat dela eta osotasun bat biltzen duela. (...) askotan hezitzaileek hitz egiten dute eta ez zaie ulertzen, beraien hizkuntzak ez duelako sintonizatzen aurrean daukanpertsonaren egoera konkretuarekin. Hori horrela bada, bere diskurtsoa alienatua eta alienantea bihurtu daiteke”

*Paulo Freire
Pedagogía Liberadora*

Elkarrizketan oinarritzeak denbora gehiago eskatzen du, noski. Eta gainera sintonia komuna bilatzea beharrezkoa da hasiera batean, normalean ez baitkaude ohituta horrela ikastera. Baina behin martxa hartuta eta elkarren hitza errespetatzen ikasita, usteak trukatzeko eta proposamenak adostean eztabaida interesgarriak ematen dira. Kasu honetan, ikasleak ziren beraien prozesuaren jabe. Askotan astuna egiten zitzairen horrenbesteko denbora pasatzea gauzak erabakitzen. Baina gero beraien gaitasunen kontzientzia handiagoa zuten, eta beraiek erabakitakoan lan egiten zutela ikusita, esan-guratsua izan zen ikas-prozesua.

B.3.- Metodologia artistikoak

Lehen aipatu dugu nola arte hezkuntzan, arte objektuekin lan egiteaz gain, praktika artistikoekin ere lan egiten den.

Kasu honetan, ez genuen arte ekoizpenekin lan egin, baina bai artetik hartutako metodologiekin. Mapeoak, deribak, instalazioak, material ezberdinekin osatutako ekoizpen plastikoak...

Batez ere, artistek prozesuetan jartzen duten garrantzia baliatu genuen. Pausu bakoitzak laguntzen zuen hurrengo pausua ematea, eta egun batean ateratako ondorioetatik erabakitzen zen hurrengo saioan egin beharrezkoa.





B.4.- Rolak

Artistarik ez genuen inplikatu Auzoko Hitzak proiektuaren kasuan. Baina garatu ditugun beste proiektu batzuetan bai ("Ikastolatik auzora, auzotik ikastolara" Jakintza ikastolarekin batera garatutako proiektuan adibidez) eta oso interesgarria iruditzen zaigu horrelako elkarlanak aurrera eramatea. Ezagutza ezberdinak gurutzatzea aberasgarria iruditzen zaigu, eta hezkuntzaren kasuan, praktika artistikoarekin osagarriak.

Dena den kolaborazio hau ematen baldin bada beharrezkoa da rolen ingu-

ruan hausnartzea, artistak prozesuan zehar ze rol izango duen definitu alde zurretik, alegia. Eta prozesu artistikoa, hezkuntza-prozesua edo bien arteko gurutzaketa den pentsatu.

Irakaslen rolekin ere gauza bera gertatzen da, hau da, funtzioak alde zurretik adostu behar direla uste dugu. Garatu ditugun proiektuetan rol ezberdinak izan dituzte irakasleek, eta haien artean gure ustez interesgarriena kolaboratiboa litzateke.

Irakasleak normalean taldea ezagutzen du eta agertzen diren gai berriak beraien ezagutzekin eta ikas-proze-



suarekin nola lotu pentsatu dezake. Horrela mota honetako prozesuak kurrikulumarekin lotura zuzena izango dute. Proiektu honen kasuan irakasleek saioetan parte hartu zuten, baina ez zituzten dinamizatu ez eta diseinatu. Orain, esku artean ditugun beste proiektu batzuetan beste metodologia bat probatu nahi dugu eta saioak irakasleekin batera diseinatu ondoren, beraiek bertan dinamizatzea nahiko genuke. Horrela garapenean inplikatuago egotez gain, benetako ezagutza elkartrukea eta ikaspena eman daitekeela uste dugu. Dena den, interesgarria iruditzen zaigu ere ikasleentzako hezitzaile ezberdinen ekarpenak jasotzea. Horrela, metodologia, ezagutza eta ahots diferenteak ezagutuko dituztelako.

C.- Itxiera, balorazioa eta ezagutza berriak partekatzea

Lan prozesu honetan material ezberdinek sortu ziren:

9 bideo-eskutitz, ikasleek sortutakoak eta eskola ezberdinen artean partekatutakoak. Espazio publikoan egindako 8 interbentzio. Elkarrizketak, marrazkiak eta argazkiak.

Lan guzti hau biltzeko, Egiako Kultur Etxean erakusketa bat antolatu genuen, martxoak 6-17 bitartean. Denbora-tarte horretan zehar, parte hartu zuten eskola taldeak erakusketatik pasatu ziren, beste talde batekin elkartuz, elkarri prozesuaren berri emateko eta beraien proiektuak aurkezteko.

Honetaz gain, erakusketarekin batera jarduera programa bat garatu zen non lantegi, proiektio eta hitzaldi batzuen bidez, hezkuntza proiektu kolaboratiboen inguruan ikertzen jarraitu genuen.

Akzio guzti hauek lotura dute ezagutza berriak partekatzearekin, hau da, ikasprozesuak sozializatzearekin. Auzoko eragile eta pertsona askok bazekiten egitasmo honetan murgilduta ginela, baina produkzioak kalean jarri izana publiko izaera eman zion lanari.

Alde batetik ikasleek errekonozimendu gisa bizi izan zuten, beraiek egindako zerbait auzoan geratuko zelako eta jende askok ikusi ahal izango zuelako. Baina batez ere, artefaktu hauek tresna izaera zutelako, jendearengan eragin bat izan nahi zutelarik, espazioak modu kolektiboan erabili, toki batzuk beste era batera bizitu eta euskara sustatzeko.

Gauza jakina da kalea eta espazio publikoa erabiltzeko hainbat araudi badaudela, eta instalazioak egiteko hauek ezagutu, aztertu eta ezagutu behar izan genituen ikasleekin batera. Baimenak eskatzeko bideak ezagutu eta baita ere, onartu, eskatutako gauza guztiak ezingo zirela gauzatu.





C.1. Dokumentatzea

Proiektuak dokumentatzeko modu ugari daude, argazkiak atera, grabazioak egin, oharak idatzi, elkarrizketak egin, materialak jaso, etab. Edozein bide aukeratuta ere, dokumentatzearen garrantzia azpimarratu nahiko genuke. Egia da garapenaren erdigunean gaudenean, ez gara konturatzen zein inportantea den lan hau modu egoki eta kontzientean egitea.

Alde batetik prozesua bera kolektibizatzeke aukera ematen du honek, bestela gure buruetan bakarrik geratzeko

arriskua dagoelako. Bestalde, beharrezkoa izaten da, bai bitartean eta bai ondoren, bizitakoaren narrazioak erakitzea. Atzera begirako honek ikasteko bideak ere irekitzen ditu, eta esperientziak esanguratsuagoak bihurtzen ditu ondorioz. Beste alde batetik, begirada bakar batetik dokumentatzearen arriskua dago. Horregatik, oraindik frogatu ez badugu ere, datozen proiektuetarako, parte hartzaile guztiek dokumentatzeko ariketa egitea proposatu nahi dugu. Horrela, bizipen ezberdinak jasoko dira, eta garrantzizkoak kontsideratzen diren uneak, komentarioak eta akzioak anitzagoak izango dira.





Guzti hau egin ahal izateko noski, dokumentatzea ere aldeztu aurretik egin behar diren lan guztiekin batera adostu beharreko zerbait da. Une horretan ere, irudi edo material horien erabilera eta kudeaketa adostu beharko litzateke; adibidez, pertsona guztiei beraien irudiak erabiltzeko baimena eskatuz eta, adin txikikoen kasuan, tutoreen (edo gurasoen) baimena eskatuz.

C.2. Ebaluaketa

Hezkuntza prozesuetan ebaluaketak berebiziko garrantzia dutela jakin badakigu. Baina egia da, gure kasuan behintzat, ez dugula oraindik errezeta

magikorik topatu. Argi dugu ebaluaketa jarraia egitearen aldekoak garela. Baina kontziente gara aldi berean, askotan oso zaila dela bidean egin eta bukaerarako ez uztea.

Balorazioak maila ezberdinetan eman ziren Auzoko Hitzak proiektuan. Ikasle taldeek beraien erantzunak azken saio batean. Dinamika erraz batzuen bidez, zer ikasi zuten, zerekin pasa zuten ongi, zer errepikatuko lukete, eta zer egingo lukete beste era batera aztertu zuten. Beraien jarrera eta parte hartzea, taldearena eta hezitzaileena ere baloratu zuten.

Irakasleekin beste bilera batean burutu zen balorazioa, metodologiak, antolaketa, zailtasunak eta aurkikuntzak identifikatu. Eta azkenik zuzendaritza taldeak elkartu eta egitasmo osoaren garapena eta auzoan izandako eragina eta sortutako dinamika baloratu ziren.

Honekin batera, gure buruaren auto-ebaluaketa ere egin genuen eta prozesu osoan zehar jasotako "diario de campo" a baliatu genuen.

Gerora, beste egitasmo batzuetan, aukera izan dugu kanpoko begirada bat txertatzeko eta pertsona batek ikerketa eta jarraipen lana egiteko. Aukera hau oso baliagarria iruditzen zaigu, baldin eta ikerketa honen helburuak, funtzioak eta ezaugarriak aldeztu aurretik ondo zehazten diren.





C.3. Ondorio batzuk

Ateratako hainbat ondorioen artean eskolen arteko harremanei dagokiona aipatzea aukeratu dugu. Auzoko Hitzak proiektuaren helburuetako bat auzoko hezkuntza komunitatea indartzea zen. Eta neurri batean lortu zen arren, erresistentzia asko agertu ziren eskolen arteko elkarlanak gauzatzeko momentuan. Egia da eskola bakoitza mikrosistema bat dela, bere funtzionamendu eta iruditegi guztiekin, eta askotan malgutasun falta sumatu zen, errutina hauek aldatu eta beste eredu batzuekin elkartzerako momentuan.

Dena den, badakigu kontu hauek bere denbora behar dutela, eta orain esan dezakegu, gerora harreman hauek estutu direla (batzuen artean behintzat) eta proiektu batzuk elkarlanean garatzen ari direla.

C.4. Auzoko Hitzak material gehigarriak - ikusentzunezkoak

ARGAZKIAK

<https://www.flickr.com/photos/tabakaleradonostia/sets/72157650861975770>

BIDEOAK

https://vimeo.com/tag:Auzoko_Hitzak

<https://vimeo.com/120784733>





4.— ERREFERENTE INTERESGARRIAK

Jarraian datozen adibideak kultur esparru eta hezkuntza komunitatearen arteko gurutzaketa posibleak erakusten dituzte, eta aurretik azaldu dugun ereduari zentzu berriak edo ñabardurak gehitzeko ahalmena dutela uste dugu. Bai instituzio kultural zein esko-

letan horrelako epe-luzeko prozesuek indarra hartzen doazen erakusgarri dira, ohiko formatuetatik at planteatutako jarrera kritikoak direlarik. Ez ditugu eredu kanoniko edo bakar bezala aurkeztu nahi, baizik eta aukera eta interes-gune moduan.





Postcards from the Desert Island (2010–11)

*Adelita Husni Bey
Pariseko École Vitruve-n*

Postcards from the Desert Island (2010–11) Pariseko lehen hezkuntzako École Vitruve ikastetxe autogestionatuan *Adelita Husni-Bey* artista eta ikerlariak aurrera eraman zuen hiru aste-ko lantegi bat da. *William Golding-en Lord of the Flies* eleberritik abiatu-rik, Adelitak 7-10 urte bitarteko haur talde batekin eskolako hall nagusia irla desertiko batean bilakatu zuen. Bertan, taldeari gizarte komunitate bat pentsatu eta eraikitzeko eskatu zion. Lantegi hau artistaren ikerketa ildo baten zati da, hezkuntza sistema eta pedagogia moldeen ingurukoa, kolaborazioan eta talde lanean oinarritutako praktiketan arreta handia jarritz. Hau da, hezkuntza formatu jakin batean hezi diren haurren antolakuntza ereduak nolakoak ziren eta zein nolako iruditegi politiko soziala zuten aztertzea interesatzen zitzaion.

Peter Brook-en Lord of Flies (1963) filmeko paisaietaz baliatuz, haur taldea bere irla eta komunitate berria eraikitzen hasi zen eskolako hall-ean. Aurretiko araurik jaso gabe, ezagutzen zuten gizartetik isolaturik geratzen den irla berrian bizitza kudeatzen hasi ziren, beraien egunerokotasunak eskaintzen ez zizkien askatasun eta posibilitateak esploratuz. Gizarte eta autogobernu eraikitze horretan zenbait gai interesgarri plazaratu zituzten: instituziorik

gabeko gizarte bat pentsatu, botereen banaketan kudeaketa, pribatu eta publikoaren arteko muga eta harremana etabarrak.

Hiru asteetan zehar, artista taldeak jasandako prozesu eta eraldaketaren bidelagun izan zen, baina ez zen hezkuntza praktikaren ardatza izan, nahiz eta gidalerro batzuk eman hasiera batean. Beraz, kasu honetan, haur taldeak hein batean libreki jokatzeko aukera izan zuen, prozesuaren nondik norakoak definitu gabe gelditzen zirelarik.

Adelitak berak aitortu zuen horrelako prozesu bat eskola arrunt batean aktibatzea ez dela erraza normalean, eskola egitura bera nahiko hermetikoa denez gero, eta halaber, eredu esperimentalagoekin lan egiten zuen eskolara jo zuela atea. Horrela bada, proiektuak lantzerako ohituta zeuden irakaslegoaren aldetik harrera ona izan zuen proposamenak, eta kanpotik inposatutako egitasmo bat izan beharrean, eskola kurrikulumean bertan txertatzen zen beste proiektu bat bezala jaso zuten.

Prozesu guztia dokumentatzeko bideoa erabili zuen euskarri gisa. Hemen proiektuaren bigarren denbora-maila bat agertzen da, jasotako dokumentazioaren analisia eta bere proiektu artistikorako edizioa. Azken finean, xede antropologiko batetik abiatuz, kamarak prozesua bizi ahal izan ez duen orori zuzendurik dago, hau da funts pedagogiko bat ere bilatzen du Adelitak.






Cartografiem-nos

Es Baluard, Mallorca

2006tik *Es Baluard, Palmako Museu d'Art Modern i Contemporani*, eskola komunitatearekin martxan duen programa bat da, konkretuki, lehen hezkuntzako hirugarren zikloko taldeentzat. Deialdi ireki baten bidez izena eman dezakete ikastetxeek eta haien artean bat aukeratzen da. Proie-

museoan zituzten Mallorkaren paisaia idilikoak egungo errealitatearekin alderatzeko helburuarekin.

Es Baluard-eko hezkuntza saileko ki-deek etengabe eraldatzen den proiektu bat bezala definitzen dute. Hor dago gakoa ere, eraldatzeko gaitasunean, egokitzapen gaitasunean, itxiak ez diren prozesuetan. Azken finean, talde eta hezitzaileek bere denborak eta espezifikotasunak ditu, eta espe-



ktuaren abiatze puntua lurraldearen inguruko hausnarketa da, eta bereziki, eskola kokaturik dagoen auzotik, ikasleek bertan bizitzen dituzten esperientziak eskola eta komunitatearekin harremanduz.

Proiektua bera *Es Baluard*-eko hezkuntza sailetik jaio zen, alde bate-tik, museoak berak zuen arte bildumari ohiko eta normatiboa ez zen irakurketa kritiko bat planteatu eta, bide batez,

rientziak berak papelean diseinatutako jarduera eta praktikan jartzearen arteko aldea erakutsi digu.

Ikasturte osoan zehar garatzen den proiektua izaten da estruktura nahiko egonkor bat jarraituz. Proiektuaren lehenengo fasean lurraldearen ikerketa burutzen dute ikasleek. Museoko hezitzaileak aurkezpena egin eta ikerketarako tresnak ematen dizkiete: argazki kamera analogikoa, objektu





bilketarako kaxak, mapak, elkarrizketa ereduak etab. Bertan, ikerkuntza aktibo eta erreflexiboa bultzatzen da, non ikasle, irakasle, bizilagun eta auzoko eragileak parte-hartzaile aktiboak diren. Fase honen aspektu garrantzitsuena irakasleak proiektua berea egiten dueneko da, bere talde eta behar kurrikularretara egokitzen duenean. Esperientzia pertsonaletik, bakoitzaren subjektibitateak, haurren auzoarekiko begiradatik, diskurtso bisual bat erakitzen da gutxinaka objektu eta irudiekin.

Ikerketa fasearen ostean, informazio bilketaren analisia egiten da eta landu nahiko zituzten gaiak aukeratzen dira taldean. Bestalde, jasotako material guztiarekin zer egin erabakitzen da, kasu honetan, museoan erakusketa txiki bat antolatzen dute, museoa bera espazio mutante gisa ulertuz.

Azpitarratzeko beste aspektu gisa, proiektua bai ikasgelan, auzoan eta museoan bertan gauzatzen dela, ikasleek bizi duten auzoarekiko harremana estutuz.

Aquí trabaja una artista

CA2M, Móstoles

“Aquí trabaja un artista” Centro de Arte 2 de Mayo-ko hezkuntza sailetik bideratzen den proiektu bat da, museoak inguruan dituen eragile eta erakundeekin denboran luzatu daitezken sinergia eta aliantzak sortzeko esperantzarekin. Hezkuntza formalean hezkuntza artis-

tikoaren desagertaritze progresiboa ikusirik, erronka interesgarria iruditu zitzaion artista bat inguruko ikastetxeetara egoitza artistiko bat burutzera gonbidatzea. Ildo horri jarraituz, artista eta hezkuntza erakundea nola elkar eragiten duten interesatzen zaigu.

Badira bi ikasturte proiektua martxan jarri zenetik, ikastetxe bakoitzean prozesuak desberdin gorpuzten direlarik, bai artista desberdinen lan eta izaera moldeen arabera, eta ikastetxearen izaeraren arabera ere. Ikasturte oso batean zehar zabaltzen diren prozesuak dira eta talde bat edo birekin askoz jota.

Hasieratik zaindu izan nahi zuten zerbait artista eskolan nola sartu izan zen, paraxutista baten antzera ikasgelara iritsi ez zedin. Gainera, naiz eta artista bakoitzak bere praktika artistiko jakinak eduki, zein gai eta nola landuko diren ez zehazten saiatzea zen helburuetako bat. Aidaren zitan aipatzen dugun bezala, sarritan, artistekin egiten diren proiektuak ez dira irakaslegoarekin batera diseinatzen eta, baliteke, ikasleek ekoizpen laguntzaile gisa soilik parte hartzea. Kasu hauetan, disziplinarteko proiektuak martxan jartzen saiatzen dira eta printzipioz praktika artistikoarekin zerikusia ez zuten ikasgaiak harremantzeko jokaleku berria eskaintzen dute.





5.- TERMINOLOGIA PARTEKATZEN

Liburuxka honi bukaera emateko terminologia partekatzeko proposamena egiten dugu. Askotan hitz berdinek esanahi ezberdinak hartzen dute segun eta zein testuingurutan aipatzen diren. Atal honen helburua lengoaiak bateratu eta elkar ulertaraztea da. Horretarako, testu osoan agertzen joan diren eta funtsezkoak iruditzen zaizkigun kontzeptu batzuk aukeratu ditugu, ez definizio akademiko bat proposatzeko baizik eta orokorrean haien esanahi eta erabiltzeko moduak argitzeko.

Hezkuntza artistikoa eta bitartekaritza arte eta kultur-instituzioetan

Esan genezake instituzioetan garatzen ari den arte hezkuntza eta bitartekaritza eremu nahiko berriak direla gure testuinguruan eta gainera, praktika

hau ulertzeko modu eta ondorio anitzak egon daitezkeela. Baina finean, instituzio bera gailu pedagogiko bezala ulertzean datza. Horrela, forma ezberdinak izan ditzaketen praktika pedagogikoak garatzen ditu: tailerrak, lantaldeak, proiektuak, bisitak, mahainguruak, etab. Lan hau, ezagutza berriak elkarrekin eraikitzean oinarritzen da, artea, kultura eta beste gai askoren inguruan ikertuz.

Hortaz gain, instituzioa bera gurutzatzen duten subjektibotasun eta harreman kulturalak ere aztertzen dira, eta pertsona eta kolektiboen ezagutza eta mundu ikuskerekin harremanak bilatzen dira.





Praktika artistikoak

Arteari buruz hitz egin baino, nahiago izan dugu praktika artistikoa erreferentziatu. Kontzeptu honek ikerketa artistikoa, ezagutze bide anitzak, esperientziak, arte objektuak, erakusketak, prozesuak... eta beste ideia asko barneratu ditzake, hau da, artearen nozio klasikoa ireki eta zalantzan jarri. Letra larriz idazten den arteak ez ditu praktika anitzak barnebiltzen eta tradizioetik edo historia ofizialetik kanpo geratu diren beste arte praktika batzuk kanpoan utzi ditu. Horretaz gain, gaur egun badugu arte objektutik haratago joateko grina, praktika artistikoen barruan beste egiteko modu ez objektualak existitzen direla aldarrikatzen dugularik.

Sormena

Sormenari buruz hitz egitea konplexua den arren, hezkuntza prozesuei buruz ari garenean, ematen diguten informaziotik haratago joateko gaitasuna izango litzateke. Ez du zertan praktika artistikoari lotuta egon behar, arazoak konpontzeko eta irtenbide berriak bilatzeari erreferentzia egiten diolako.

Badaude ordea sormenari lotutako aurreiritziak, eta hauen arabera pertsona batzuek duten berezko gaitasun propioa litzateke sormena. Gure ustez aldiz, pertsona orok dute sortzaileak izaten ikasteko gaitasuna. Hori bai, hezkuntza metodologia batzuek pentsamendu dibergentea eta ikerketarako bideak irekitzen dituzte eta beste batzuk ez. Ekoizpen artistikoekin eta praktika artistikoarekin lan egiteak sormena elikatu dezake, noski artefaktu



interesgarriak direlako artelanak, esanahi itxiak aurkeztu baino interpretazio aniztetera irekita dudelako. Baina beti ere planteatzen diren dinamikek hau baimentzen baldin badute.

Honekin batera, sormena eta originaltasunaren ideia indibiduala baztertu nahiko genuke eta sortze prozesua, prozesu kolektibo bezala ulertzeko aukera mahaigaineratu.

Prozesu kolaboratiboak

Egungo testuinguruan, arte praktika kolaboratibo eta pedagogia kolektiboen hazkunde bat nabari dugu, hauek eraldatze sozial bat proposatu eta harreman desorekatuak zalantzan

jartzeko ahalmena dutelako. Arte prozesu kolaboratiboetan instituziotik haratago doazen eragileek parte hartzen dute, hau da, kultur langileetatik gain (arte hezitzaile, artista, zinegile, arkitekto...), beste kolektibo edo eragile sozialek. Eraitza kolektiboak sortzeko negoziatioak, kapitalaren banaketa eta zirkulazioak, rolak, ardurak, harreman desorekak edo gatazkak kolektiboki kudeatu kudeatzen dira.

Ikas komunitateak

Ikas komunitateak edo ikaskuntza komunitateak elkarrekin ikasten duten desberdinen taldea dela esan genezake. Aldez aurretik existitzen den



eredu baten aplikazioa ez den arren, **Paulo Freireren** ideiak izaera ematen dioten prozesua da. Gizarte eta hezkuntza egoeraren azterketatik sortzen da eta ikasketa edo ikaskuntza dialogikoa da sustatzen dena. Hau da, gizakien arteko topaketa bat bezala uler dezakegu, zeinean guztion artean, norberak dakarren jakituria eta esperientziatik abiatuz, ezagutza berri bat eraikitzen den. Izan ere, hezkuntza ezagutza sozialki eraikitzen da, guztiok taldean besteez sortzen dugu, ez da hor dagoen zerbait edo eliteek sortzen duen produktua soilik.

Pedagogia kritikoa

Kritikotasunaren ideia Foucault-etik hartzea interesatzen zaigu. Subjektuek egia bere botere efektuen inguruan galdetzeko eskubidea beraganatzea dela azpimarratu zuen berak, eta aldi

berean, botereak berak duen egia sortzeko gaitasuna zalantzan jartzea. Hau hezkuntza praktikara eramatean, ikasle-irakasle hartu-emanen sortzen diren botere harremanak aztertu beharko genituzke. Eta era berean, ikasi edo ezagutu "beharrekoa", egi osoa ideia-izaera zalantzan jarri ere. Kurrikulumaren aukeraketa erabaki politikoa dela onartuta, eztabaidagarria litzateke ikasi beharrekoa zer den definitzea, zeinek erabakitzen duen pentsatzea, zergatik edo zertarako. Arte hezkuntzaren kasuan, pedagogi kritikoa ekarpen baliagarria egin du arte sistema bera zalantzan jartzeko, artearen historia nola eraikitzen den aztertu eta kultura esanguratsuen beste definizio bat egiteko. Aldi berean, hezitzailearen rola bera zalantzan jartzen da uneoro pedagogia mota hauetan, bera 'egia osoa' duen pertsona bezala ez ulertuz.





6.— GAIARI BURUZKO TESTU BATZUK:

- *Agirre, Imanol* (2005). Teorías y prácticas en la educación artística. Ideas para una revisión pragmatista de la experiencia estética. Barcelona: Editorial Octaedro.
- *Amengual, Irene* (2015). A ras de suelo. La educación en museos como encrucijada de discursos, pedagogías, experiencias compartidas y mucho más. Gijón: Trea.
- *Ayuste, Ana.*; Flecha, Ramón.; López Palma, Fernando.; Lleras, Jordi (2003). Planteamientos de la pedagogía crítica – Comunicar y transformar. Barcelona: Graó. 4ª Edición.
- *Cevallos, Alejandro; Macaroff, Anahi* (2014). Contradecirse a una misma. Museos y mediación educativa crítica. Quito.
- *Freire, Paulo* (1974). Pedagogía del oprimido. México: Ediciones siglo XXI.
- *García, Teresa Ed.* (2015). Antología, Paulo Freire. Pedagogía liberadora. Madrid: Catarata.
- *Hernández, Fernando* (2003). Educación y cultura visual. Barcelona: Octaedro-EUB.
- *Padró, Carla* (2012). El aprendizaje de lo inesperado. Madrid: Catarata.
- *Ranciere, Jaques* (2003). El maestro ignorante. Barcelona: Laertes.
- *Rodrigo, Javier* (es) (2007). Pràctiques dialògiques. Interseccions de la pedagogía crítica y la museología crítica. Fundació Es Baluard Museu d'art Modern i Contemporani de Palma: Palma de Mallorca.
- *Sarrionandia, Joseba* (2010). Idazlea zeu zara irakurtzen duzulako. Donostia: Xangorin.
- <https://redesinstituyentes.wordpress.com/glosario-y-referentes/comunidad/>



HAURREN AISIALDI PARTE-HARTZAILEA, EUSKALDUNA, HEZITZAILEA ETA HERRITARRA GARATZEN

Koaderno bilduma:




**JOLASA:
ESKUBIDEA ETA ERREALITEA**



**ARTE HEZKUNTZA ETA PROZESU
KOLABORATIBOAK
Elkarrekin sortu, elkarrengandik ikasiz**

BILDUMA HONETAKO AURREKO ALEAK:



**<http://oinherri.weebly.com>
helbidetik jaitsi ditzakezu doan.**